

1.- Haur parkea

laz, herriko aisia-lekuen diagnosis egin genuenean, herriko haur parke handiena obretan zegoenez ezin genuen eremu honetan lana burutu. Horregatik aurren, haurrak jolasten ari direnean behatu eta bertan zeuden helduei eta txikiei galdeketa egin dizkiegu. Honen ondorioz hurrengo puntuak nabarmendu ditugu:

Faltan botatzen ditugun gauzak hauek direla:

- Ezkutatzeko tokiak.
- Ura eta hondarra jolasteko.
- Zalduak malgukiek.
- Sare bat handiagoa.
- Txirrista handiago bat.
- Etxetxo handi bat zubiarekin.
- Bueltak ematen dituzten bizikleten jolasa (parke zaharrea zegoen bezalako.)
- Jira-biran zerbait eusteko, ez erortzeko.
- Hodi aspian eguzkiarekin erretzen zara, hobe izango da hodiak erdi irekiak jartzea, zuloekin.
- Itzala eta zuhaitzak.
- Bide-gorri txiki bat hesituta bizikletarekin ibiltzeko, semafora eta zebrabidea jarrita eta aparkalekuak.
- Lur biguna; erori ezker mina hartzen dugu.
- Beste iturri bat, egokiagoa.
- Landareak errespetatzeko itxidura.
- Belarra.
- Komunak.
- 8-10 urtekoentzako jolasak.
- Zakur kaka jasotzeko seinalezapena.

Hauek kenduko genituzke.

- Zakurren kakak.
- Landaretza: gehiegi dago eta gainera itsusia da.
- Perretxikoak (jolasa)

Parkea txukun mantentzeko hurrengo konpromisoak hartzen ditugu:

- Zaborrak zakarrontzira botatzea.
- Txikiagoak direnak errespetatzea eta ez molestatzea.
- Landareak zaintzea.

2.- Sortzez garbia

Asteburuetan, plaza honetan 10 urtetik gorako ume eta gazte asko biltzen gara, eta hausnarketa bat egin behar genuela erabaki zen. Honen ondorioak hurrengoak dira:

Ondorioak

- Bertan dauden elementuak ez ditugu ondo erabiltzen ezta errespetatzen.
- Gehienok inguruko jendea errespetatzen dutela uste dugu baina portaerak desegokiak izaten dira batzuetan: adineko jendea iraindu, gauzak puskatu, denda lapurtu eta horrelakoak gertatzen dira.
- Bertan hitz egiten eta litxarkeriak jaten egoten gara.
- Litxarkeriak osasungarriak ez direla jakin arren neurrian jan egiten ditugula aitortzen dugu.
- Aitortzen dugu hondakin gehiegi sortzen dugula eta gehienetan zaborra lurrera botatzen dugu, gauden tokitik ez mugitzea.
- Zaborra lurrera botatzerakoan garbitzaileak ez ditugula errespetatzen konturatzen gara.

Konpromisoak

- Honen aurrean hurrengo konpromisoak hartzea erabaki dugu:
- Bertako bizilagunak errespetatuko ditugu, etxeetako tinbreak

ez ditugu joko, denda ez dugu lapurtuko.

- Bertan dauden elementuak hobeto zainduko ditugu: bankuak, farolak, zakarrontziak, paretak, landaredia...
- Gauzak ez ditugu lurrera botako eta zakarra zakarrontzietara botako ditugu.
- Gure artean portaera egokia izango dugu.
- Jendea errespetatuko dugu eta adibidez bizikletan goazenean ez gara gehiegi hurbilduko.
- Jokaera okerrak egon ezker jakinaraziko ditugu.



Proposamenak

- Udaletxean proposamen batzuk egitea ere nahiko genuke:
 - Toki estali bat jartzea.
 - Zakarrontziak banku inguruetan jartzea.
 - Komunak jartzea eta garbiak mantentzea.
 - Parkea eta bertako elementuak txukuntzea eta konpontzea.
 - Parkean elementu berriak jartzea: tirolina, txirrista handiagoak, zabu gehiago.....bertan ibiltzen garen adinerako egokituta.
 - Aktibitate batzuk antolatu bertan adinen arabera.

3.- Zerkausia

Zerkausia obretan dagoela, alkateak esan zigun ondo pentsatzea zertarako erabili nahi dugun etorkizunean eta horretarako zeintzuk izango diren beharrak eta fitxa baten laguntzaz, lan horri ekin diogu. Hauek izan dira emaitzak:

Ondorioak

- ARGIA: gaeuz argizatzen beharra ikusten dugu
- BEROKUNTZA: berokuntza sistema jartzea.
- KOMUNAK: guztiz beharrezkoak iruditzen zaizkigu.
- ITXITURA ELIPTIKOA: itxitura eliptikoa ez dugu beharrezko ikusten, gainera errez puskatuko litzatekeela iruditzen zaigu.
- TERRAZA: goiko solairua jendearentzako irekia izatea nahiko genuke.

Proposamenak

- ARGIA
 - Jarri behar den lanpara kopurua neurtzea proposatzen dugu, ongi argizatuta egotea inportantea da, baina neurrian.
 - Behar denean bakarrik egon beharko lukete piztuta.
 - Behar hori antzemateko sentsoreak jartzea proposatzen dugu: jende mugimendua eta argitasun maila detektatzen dutenak.
- Gaeuz, jenderik ez dagoen garaian segurtasun argiak soilik piztu.
- Lanparak energia kontsumo baxukoak.
- Energi iturri berriztagarriak erabiltzea proposatzen dugu: eguzki energia: oso leku aproposa da eguzki plakak jartzeko.

BEROKUNTZA

- Beti piztuta ez egotea, bakarrik momentu edo denboraldi

konkretutan: azoka garaian, proiektio garaian...

- Oharra: Beti piztuta egoten bada beldur gara etxerik gabeko asko han bilduko dela egoteko eta lotarako.
- Galdekizunean energi iturria gasa dela adierazi arren, energia berriztagarria erabiltzea proposatzen dugu: eguzki energiarena.

KOMUNAK

- Zainduta eta garbi egon beharko lukete.
- Zezen plazakoak bezalakoak izan daitezke, automatikoak.

ZERBAIT KENDU EDO ALDATU: TERRAZA

- Erabilera proposamenak:
 - Jolasteko
 - Eguzkia hartzeko
 - Paisaia ikusteko (urrutira ikusteko prismatikoak jarri)
 - Batelak ikusteko
 - Kafetegia jartzea
 - Itxitura: lorontzien ordez ezin al dira eguzki panelak ipini?

FALTAN BOTATZEN DUGUNA

- Pantaila erraldoia jartzea oso inportantea iruditzen zaigu: pelikulak, dokumentalak, kirol partiduak, ikuskizun bereziak... ikusteko. Orduetara finkatu beharko litzateke adinen arabera.
- Proiektzioak doanekoak izan beharko lukete.
- Musika entzuteko leku aproposa.
- Pareta ingurutan mahaia bere bankuekin jarri, paretara plegatzen direnak.
- Mahai ondoan voltio gutxi entzufek jarri.
- Ping-pong mahaia jarri
- Mahai-futbolak
- Doaneko segurtasun telefonoa
- Beheko solairuan pareta ingurutan erretzea debekatu.
- Zakarrontziak jarri
- Udaltzainak inguruan ibiltzea zainduz, etxerik gabeko beldur izaten gara.
- Pasabide nautikoa zutaberik gabe egin txalupak pasa ahal izateko.



Konpromisoak

- Lanparak ez puskatzea.
- Zaintzea, ez hondatzea. Komunak garbi eta txukun mantendu.

Oharra: ikasle guztiok zaintzeko konpromisoa hartu dugu gelaka orri bat sinatuz.

4.- Zumardiandi

Zumardiandi orain dela urte batzuk asko erabiltzen bazen ere orain autoak aparkatzeko eta gutxi gehiago erabiltzen da eta aisiarako berreskuperatzea oso ona dela iruditzen zaigu. Orain arkitekto bat proiektua egiten ari da eta Hirigintza departamentuak esanda gure iritziekin kontatu behar du. Fitxa baten laguntzaz lana egin eta gero berarekin bildu gara. Ea hemen emaitzak:

Ondorioak

- Berreskuperatu behar dugun lekua dela.
- Emakumezkoen ikuspegitik berreskuperatu behar dela, arrisksua delako.

- Denoi gustatuko litzaiguke menditxo dagoen bezala mantentzea, pareta eta guztiz.
- Ibaia kanala dirudi eta nahiago dugu ibai naturalaren itxura izatea, gainera jaitsi egingo ginatete bustitzera.
- Autobidearen inpaktua ez zaigu gustatzen eta disimulatzea nahiko genuke. Gainera zutabe baten egoera oso txarra da.
- Dauden sarrerak nahikoak direla baina egokitu behar direla



Proposamenak

Proposamen asko ekarri ditugu, eta ataletan daude banatuta.

Errekeri dagokionak hauek dira:

- Orain dagoen zikinkeria garbitu, uretan dagoena eta ertzetan dituen paretan kendu eta landaretza jarri.
- Heriotza gabeko arrantza egiteko prestatu.
- Urak mugituko tresnak jarri.

Autobidearekin lotuta daudenak:

- Zutabeak landareekin estali, eta bat rokodromoa jartzeko erabili.
- Igerilekuko sarreran tunela jarri zutabeak ez ikusteko
- Autoen zarata ekiditeko hesi akustikoak jarri eta dagokionari esan autoen abiadura jaitsarazteko.

Hauek sarbideei dagokie:

- Sarrerako bidea guztiak txukundu eta harri kokorrek kendu, aparkalekuak ere kendu eta ezinduentzat egokituz.
- Eskolapioetatik datorren bidea hobetu eta hilerriraino luzatu, gero handik, Leaburura eta Gaztelura igotzeko.
- Orain dagoen igerilekutik sartzen dena altxatu.

Eta azken multzo honetan beste batzuk aurkezten ditugu, oso garrantzitsuak:

- Emakumezkoek arriskurik gabe ibiltzeko neurriak hartu.
- Biodibertsitateari buruzko panel informatzaileak jarri.
- Menditxo egokitu, arriskurik gabeko jolaslekua izateko, paseatzeko...
- Hurrengo homiketa jarri:
 - Komun dotoreak, bakarrik garbitzen diren horietakoak, farolak, iturriak eta banku berriak.
 - Belardi handi bat etzanda egoteko modukoa.
 - Bidegorria, Zumardiandiko eremuari buelta ematen diona eta inguruko bidegorriekin komunikatuta
 - Patinekin ibiltzeko leku on bat
 - Merendero estalia eta agian kafetegi txiki bat gozokiak eta saltzen dituen, ez ohizko gozoki denda bat
 - 10-15 urtekoentzat parke berezi bat, tirolina, abenturazko zirkuitoa, laberintoa...
 - Kiosko bat estilo guztietako musika ekartzeko.
 - Txokolatera mantentzea nahi dugu, aspaldiko elementu polita delako.
 - Panel bat sarreran elementu bakoitza non dagoen adieraziz.

Konpromisoak

- Guk bertan jarriko diren elementuak zaindu egingo ditugunaren konpromisoa hartzen dugu. Ibaira ez ditugu hondakinak botako, gure gurasoei esango diegu autobidetik doazenean abiadura jaisteko, gure txakurrarekin joaten garenean bere betebeharrak ez asetzen uzten saiaturako gara eta ahalik eta gutxien zikintzen saiaturako gara.



Elkarrizketak



Aurren elkarrizketa motz bat planteatu diegu gurekin jardun duten bi arkitektoei, Juan José Gurrutxaga zerkausiarren berrikuntzaren zuzenbidea daraman arkitektoa eta Manuel Jimenez, Zumardiandi eremuaren berrikuntzarako proiektua garatzen ari dena.

1.- Zein da zure iritzia ikasleek egindako lanari buruz?

JJG- Oso lan ona egin dute. Proiektua ondo aztertu eta beraien ustez soberan edo faltan zegoena azaldu dute, ikuspuntu jasangarri batetik.

MJ- Oso positiboa. Nire ustez gaiarekin erabat identifikatu dira eta gainera egin duten diagnosiarekin asmatu egin dutela esango nuke. Teknikoki arazo garrantzitsuenak identifikatu egin dituzte eta hori eginda erraza egin zaie irtenbideen nondik norakoak finkatzea.

2.- Egindako lanaren inguruan ekarri dituzten proposamenetik zein iruditzen zaizu bitxia? Eta baliagarria?

JJG- Terrazan eguzkiaren energia aprobetxatzeko panelak jartzeko proposamena ona iruditzen zait, nahiz eta kasu honetan, terraza publikoa izango denez, ez dudan oso egokia ikusten. Proposamenetik baliagarria Zerkausiarren inguruan komunak jartzea iruditzen zait, gune hau benetan bizi ahal izateko behar den zerbitzu bat delako.

MJ- Bitxi eta garrantzitsu, biak ibaiari ematen dioten irtenbidea. Beraiek ez dute bertan erreka bat ikusten, berez kanal bat da, eta naturalizatu behar dela diote. Hau proiekturako funtsezkoa da eta gainontzeko ideia guztiak ildo beretik doaz.

3.- Nola baloratzen duzu gizartearen parte hartzea hirigintzako prozesuetan?

JJG- Oso ondo neurri batean, beti ideiak sortzen direlako eta azken finean hiria gizartearena delako. Hala ere, hiritarren iritzia kontutan hartuta, benetan erabakigarria izan behar dena teknikarientzako ikuspuntua dela uste dut.


MJ- Oso ondo baloratzen dut. Orain arte gai hauek politiko eta teknikarientzako lantzen baziren ere orain herritarrei aukera eman behar zaiela konturatu gara, azken finean guk, herritarrek bezala jasotzen ditugu obra hauen ondorioak.

4.- Hurrengo batean gustura hartuko al zenue ikastaldearen proposamenak?

JJG- Oso gustura. Lan ona egin dute eta hori alde batetik proiekturako eta bestetik beraien zuzenbidearen interesgarria dela uste dut, honela dugun herria gehiago ezagutzen, baloratzen eta bereagotzen ikasiko bait dute.

MJ- Bai noski. Nik gainera oso gustukoak ditut natura eta ingurumena eta hirigintza lotzen dituzten proiektuak.

Agenda 21, beste hainbat forotan hartu du parte



Herriko neska-mutilen parte hartzea beste hainbat forotan gauzatu da, beti ere, haurren eta gazteen ahotsak helduen bilkura anitzetan tartea eta isla izan dezan. Herri guztiak denbora joan ahala aldatetako jasaten ditu egoera berriei aurre egiteko, horregatik, etorkizunerako aurreikusitako eskariei erantzuteko konponbideak ezartzen dira neurri desberdinak abian ipiniz. Hirigintzako prozesu guzti hauetan herritarren parte hartzea sustatzen ari denez, Eskolako Agenda 21 osatzen dugun foroko ordezkariak nahitaezkoa ikusten genuen hiriko prozesuetan murgiltzea. Gainera, aurrean aukera paregabea izan dugu ondorengo hiru prozesu hauetan parte hartzeko:

1.- Arau Subsidiarioen berrikuntza.

Dokumentu honek datozen urteetan baldintzatuko duen hirigintza eraldaketak aurreikusten ditu eta azken idatzia adostu baino lehenago, lehenengo aldiz, herritarren partaidetzarako bilerak antolatuta dira non Eskoletako Foroa ere parte hartzeko gonbita jaso zuen. Prozesua 2006ko urtarrileko bi egunetan eman zen eta bertan, herriko beste hainbat eragileekin jardun ginen lehentasunak, proposamenak... eta abarrek asmoak eztabaidatzen. Gure hezkuntza taldekoei ondorengo arazoak kezkatzen digutenez proposamenetan ipini genituen:

- Santa Luzia auzoan hiru ikastetxe daude eta nahikoa eremu degradatua dela iruditzen zaigu. Herriko beste muturrean, Usabalen hain zuzen, kirola leku itxian eta babestuan egin ahal izateko azpiegitura dagoenez, gure ustez Santa Luziako inguruak berreskuratu daitezke kirola kanpoan egiteko estalperik gabe. Horretarako urteetan hondatutako inguruak berreskuratu beharko litzateke berezko paisaia eta landaretza berreskuratzeko eta bertatik egon daitezkeen ibilbideak bultzatzeko: Miserikordi zaharra, Izaskun auzoa, Uzturre,...
- Bide-gorriaren inguruan oso gogoko dugun gaia da ikastetxeetan bizikletaren aldeko apustu handi egin baita. Proposamenen bide-gorria osatze lanari lehentasuna ematearen aldekoak gara herri barruko sarea ahalik eta azkarrean osatua egon dadin.
- Herriko kale eta plazetan autoei ematen zaien lehentasuna saihestea

gustatuko litzaziguke, alde batetik kale gehiago oinezkoen eremuak bihurtuz eta bestetik, plazak eta parkeak jolasgune gertatuz. Ondorioz, autoentzako beharrezkoak izango diren aparkaleku aproposak eta merkeak ezartzea.

- Oinezkoen bideak eta zirkuituak garatzeko benetako apustua egitea zirkuitu ezberdinen arteko loturak eta pasabideak barneratuz.
- Udalaren esku dauden parke eta mendi eremutan bertako landaretzaren aldeko neurriak ezartzea eta gure basoetako landaketetan biodibersitatearen aldeko irizpideak kontuan hartzea. Ildo honetatik "Elozegi Markesaren" delako baso eremua herritarren onurarako berreskuratzeko komeniko litzateke parkearen urteetako utzikeriari kasu eginez.

2.- La Voith inguruko poligonoaren alegazio epea.

Tolosako ipar sarrera honetan eraldaketa handia emango da denbora gutxi barru. Udaleko proposamenen bide-gorriaren zirkuitua eraikiko dituzten etxeren atzetik doa eta bertako garajeetatik aterako diren autoekin zein aparkatuta egongo direnekin arazoak egon daitezkeela uste dugu. Horregatik alegazioa aurkeztu zen Udaleko hirigintza zerbitzuan guzti honi buruzko aipamena eginez.

3.- Hiriko busaren zerbitzua.

Tolosako Udalak hiriko busa jarri zuenez geroztik Eskolako Agenda 21 osatzen dugun foroan interesa berezia izan dugu ikastetxeetako bidea busa honen zirkuituan egotea. Eguneroko arazoa dugu: ikastetxeetara auto pribatu asko datoz eta oinez etortzearen aldeko jarrekerak suspertzeaz gain, eguraldi txarra dela eta hiriko busa aukera ona dela iruditzen zaigu autoen gehiegizko erabilera murrizteko. Ikastetxeetan ohituren aldaketarako lana sakona egiten ari gara eta autobusaren ezarpena lan honen mesederako gertatu da. Egun, ikasle dezentze erabiltzen dire aipatutako zerbitzua eta, hala ere, ez dago oraindik gure ikasle guztien sarrera eta itereak barneratzen duen ordutegirik. Horregatik horren aldeko apustua eskatzen diogu Udalari.

La presencia del colectivo escolar en los procesos participativos abiertos a nivel municipal es uno de los retos a los que el foro de la Agenda Escolar 21 ha hecho frente a lo largo de este curso escolar. En estos procesos las revisiones que desde el ámbito urbanístico se está haciendo a diferentes escalas nos ha situado ante la urgencia de estar presentes para dejar constancia de nuestras inquietudes. Tres han sido los procesos en los que hemos participado: la revisión de las normas subsidiarias, el proceso de exposición pública del entorno de la Voith y la definición del servicio del autobús urbano. En todos ellos hemos dejado constancia de aquellos aspectos sobre los que nos parece interesante realizar nuestras aportaciones: conversión del espacio degradado del barrio de Santa Lucía en un espacio para la práctica del deporte y actividades al aire libre en equilibrio con el nuevo equipamiento cerrado de Usabal, peatonalización de más calles y recuperación de espacios públicos para el peatón, desarrollo completo del plan del carril-bici, interiorización de respeto a la biodiversidad y recuperación del hábitat autóctono en montes y parques de titularidad pública,...

Eskolako Agenda 21

Tolosa 2005/06

Tolosako eskoletako ume zein gazte guztion parte hartu dugu "KALEA BIZI" izeneko programan. Proiektuan lanean Tolosako ikastetxe guztiak jardun gara eta honako lerrotan ipini ditugu gure lanari buruzko hausnarketak nagusiak. Beste urteetan bezala, proiektu honetan saiatu gara eskola hobetzen baina baita ere herria bera, eta horregatik herriko aisia-gune batzuk bisitatu ditugu, batzuetan bere

egoera ezagutzeko eta hobetzeko proposamenak egiteko eta beste batzutan diseinatzen laguntzeko. Jarraian atera ditugun ondorioak ezagutzeko dituzue eta Udalari luzatutako proposamen garrantzitsuenak zerrendatu ditugu, ahaztu gabe, guk konpromiso batzuk hartu ditugula udalbatzarraren aurrean. Denera lau gune ezberdinak aztertu ditugu.

Kalea Bizi

Los niños, niñas y jóvenes de Tolosa han trabajado durante el presente curso escolar en un proyecto que bajo el nombre de "Kalea bizi" planteaba distintas cuestiones muy relacionadas con el futuro del pueblo: han realizado un diagnóstico del parque infantil desde el punto de vista del medio ambiente, el equipamiento, el genero y los posibles conflictos. Han comprobado que son los autores de un problema de limpieza en la plaza Sortzez Garbia y reflexionado sobre su solución, han dado ideas para el futuro uso del Tinglado y ayudado al arquitecto que está diseñando el nuevo espacio de Zumardiandi asentando criterios de respeto al entorno e ideando zonas de juego y recreo.



les gustaría utilizar la terraza. Quieren una gran pantalla para ver cine y no acaban de entender cual puede ser el uso del espacio elíptico diseñado en su interior.

- En Zumardiandi quieren que el arroyo lo sea de verdad, hoy en día es un canal. Destacan que es precisamente este elemento el que mayor protagonismo debe de tener en ese espacio. Les resulta especialmente impactante en cuanto a lo estético los pilares de la autovía y quieren reducir la contaminación acústica. En general reivindican mantener los elementos identificativos como el banco de piedra y la "chocolatera" y les gustaría unir el espacio mediante caminos cómodos con el barrio de Bidebieta.



En las páginas centrales se recogen las conclusiones detalladas de este proyecto que tienen que poner mucho de su parte en cuanto a limpieza y convivencia se refiere. - En el tinglado hacen una llamada de atención al futuro gasto energético en iluminación y calefacción y

han firmado para mejorar los aspectos más problemáticos.

Entre las propuestas realizadas destacan las siguientes:

- En cuanto al parque infantil echan en falta sitios para esconderse, arena para jugar, árboles de sombra y sanitarios.
- En Sortzez garbia o Inmaculada piden un lugar para refugiarse en días de mal tiempo y elementos en el parque más adecuados a su edad, esto es de entre 10 a 13 años. Pero reconocen que tienen que poner mucho de su parte en cuanto a limpieza y convivencia se refiere.
- En el tinglado hacen una llamada de atención al futuro gasto energético en iluminación y calefacción y

